

Bidaiarien sarrerak %2 eta gaualdiak %1 gehitu ziren 2009ko irailean

Uztailean, abuztuan eta irailean 11.500 bidaiari-sarrera gehiago erregistratu ziren 2008ko aldi berean baino, %2ko hazkundera

2009ko irailean, 191.903 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 4.400 sarrera gehiago, hau da, %2ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Hazkunde hau Gipuzkoan sustraitu da, bertan %8 hazi baitira bidaiari-sarrerak; Araban eta Bizkaian %1 murriztu dira aurreko urteko irailaren aldean.

Estatutik etorritako bidaiarien sarreretan %3ko hazkundera dago 2008ko irailaren aldean, eta atzeritik etorritakoen sarreretan %1ekoa. Estatutiko bidaiariak Gipuzkoan %8 eta Bizkaian %1 ugaritu ziren; Araban %4 murriztu ziren. Atzeritar bidaiariak Gipuzkoan %8 eta Araban %7 ugaritu ziren; Bizkaian %6 murriztu ziren.

Estatutik etorritako bidaiarien artean, gehitu egin ziren Kataluniatik, Valentziatik, Kantabriatik, Gaztela-Mantxatik, eta Nafarroatik etorritakoak, batez ere. Gutxitu egin ziren, besteren artean, Madrilatik, Asturiastik, eta Gaztela eta Leondik etorritakoak. Atzerriko bidaiarien artean, gehitu egin ziren AEB-Kanadatik, Iberoamerikatik, Erresuma Batutik, Frantziatik, eta Belgikatik etorritakoak; urritu egin ziren, batez ere, Alemaniatik, Italiatik, eta Portugaletik etorritakoak.

Gaualdiak, 2009ko urrian, 359.725 izan ziren, aurreko urteko urrian baino %1 gehiago, hots, 2.600 gaualdi inguru gehiago. Gaualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten Gipuzkoan (%7); baina Bizkaian eta Araban %4 gutxitu ziren.

Euskal AE osotara hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldia 2008ko iraileko 1,90 egunetik aurtengo 1,87ra pasa da. Araban eta Bizkaian %-3 jaitsi da eta Gipuzkoan berdin dirau. Araban batezbesteko egonaldia 2009ko irailean 1,68 egun izan zen; Bizkaian 1,77; Gipuzkoan 2,05.

Plazakako betetze-maila %-3 jaitsi eta iazko iraileko %49,47tik aurtengo %48,08ra pasa da Euskal AEn. Araban %-16 jaitsi da, %38,85ean delarik; Bizkaian %-7, %43,13; Gipuzkoan igo egin da, %7 eta plazakako betetze-maila altuena du, %58,11. Gelakako betetze-mailak ere atzera egin du, %-5, Euskal AErako.

Uztailean, abuztuan, eta irailean Euskal AEn, %2 gehitu ziren bidaiarien sarrerak 2008ko udaren aldean, hau da, 11.500 sarrera gehiago: Hiru herrialdeetan gehitu ziren: Araban eta Gipuzkoan %3 igo dira, Bizkaian %1. Gaualdiek %3 igo dira aldi berean. Araban eta Gipuzkoan %5 izan da igoera eta Bizkaian %1. Batezbesteko egonaldia %1 igo da, 2 egunetan da, eta betetze-maila %54,39 izan da azken hiru hiletan, aurreko urteko aldi berean baino %-2 gutxiago.

NEKAZALTURISMOA

Jaitsi egin dira bidaiarien sarrerak (%-5) eta gualdiak (%-10)

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, 10.122 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den irailean, aurreko urteko hil berean baino %-5 gutxiago. Hiru lurraldeetan gertatuak ez dira homogeneousak izan. Araban %-23 sarrera gutxiago, Bizkaian %-3; Gipuzkoan, berriz, %+1. Bai estatuko bisitariak, bai atzerritarrek joera negatiboa izan dute, %-2 eta %-23, Euskal AEn. Araban %-21 jaitsi dira estatukoak eta %-47 atzerritarrak. Bizkaian igo egin dira estatuko bisitariak, %1, baina atzerritarrak %-17 jaitsi dira; Gipuzkoan estatukoak %+4 eta atzerritarrak %-22.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gualdiak 26.973 izan dira irailean, 2008ko hil berean baino 3.000 gutxiago, %-10. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboa izan dira Araban (%-27) eta Gipuzkoan (%-11), baina positiboa Bizkaian (%+2).

Bidaiariko batez besteko egonaldia urritu egin zen Euskal AE osoan, 2008ko irailaren aldean: duela urtebete 2,81 egun; aurtengoan 2,66. Batez besteko egonaldia igo egin da Bizkaian eta jaitsi Araban eta Gipuzkoan.

Plazakako betetze-maila %24,27 izan zen, %-16 gutxiago aurreko urteko aldi berean baino. Jaitsiera hiruretan izan da: Araban %-34, Gipuzkoan %-16 eta Bizkaian %-5. Gelakako betetze-maila %-20 jaitsi zen Euskal AEn.

2009ko **uztailean, abuztuan eta irailean**, nekazalturismoetan, bidaiari-sarrerak lehen urtean bezalatsukoak izan dira; gualdiek %-2ko jaitsiera izan zuten aldi berean; modu positiboan Bizkaia bakarrik eraginez, Araban eta Gipuzkoan jaitsierak izan baitziren gualdietan.

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	09 2009	%	09 2008	%	Δ %	09 2009	%	09 2008	%	Δ %	09 2009	%	09 2008	%	Δ %	09 2009	%	09 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	359.725	100	357.094	100	1	45.347	100	47.305	100	-4	151.162	100	157.781	100	-4	163.216	100	152.008	100	7
Estatukoak	237.627	66	234.882	66	1	32.943	73	36.165	76	-9	95.159	63	97.116	62	-2	109.525	67	101.601	67	8
Atzerrikoak	122.098	34	122.212	34	0	12.404	27	11.140	24	11	56.003	37	60.665	38	-8	53.691	33	50.407	33	7
Hiriburua	215.256	60	215.239	60	0	29.899	66	33.737	71	-11	96.771	64	103.413	66	-6	88.586	54	78.089	51	13
Litoral	48.851	14	46.334	13	5	-	-	-	-	-	15.367	10	13.912	9	10	33.484	21	32.422	21	3
Barnealdea	95.618	27	95.521	27	0	15.448	34	13.568	29	14	39.024	26	40.456	26	-4	41.146	25	41.497	27	-1
BIDAIA-RIEN SARRERAK	191.903	100	187.454	100	2	26.915	100	27.215	100	-1	85.520	100	86.622	100	-1	79.468	100	73.617	100	8
Estatukoak	127.674	67	123.865	66	3	19.682	73	20.426	75	-4	56.494	66	55.679	64	1	51.498	65	47.760	65	8
Atzerrikoak	64.229	33	63.589	34	1	7.233	27	6.789	25	7	29.026	34	30.943	36	-6	27.970	35	25.857	35	8
Hiriburua	113.381	59	114.066	61	-1	16.827	63	18.341	67	-8	53.713	63	57.882	67	-7	42.841	54	37.843	51	13
Litoral	23.861	12	22.714	12	5	-	-	-	-	-	8.548	10	7.522	9	14	15.313	19	15.192	21	1
Barnealdea	54.661	28	50.674	27	8	10.088	37	8.874	33	14	23.259	27	21.218	24	10	21.314	27	20.582	28	4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,87		1,90		-2	1,68		1,74		-3	1,77		1,82		-3	2,05		2,06		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	48,08		49,47		-3	38,85		46,39		-16	43,13		46,29		-7	58,11		54,48		7
Hiriburua	52,50		55,06		-5	39,71		53,60		-26	47,97		51,85		-7	66,61		60,75		10
Litoral	54,66		51,07		7	-		-		-	41,31		39,33		5	64,18		58,58		10
Barnealdea	38,44		39,77		-3	37,29		34,76		7	34,98		38,14		-8	42,98		43,64		-2
BETETZE-MAILA GELAKA	57,47		60,74		-5	46,77		55,12		-15	54,24		58,69		-8	66,54		65,46		2
Hiriburua	63,55		68,61		-7	49,90		65,97		-24	60,55		66,04		-8	77,24		74,07		4
Litoral	60,98		58,79		4	-		-		-	47,96		47,22		2	69,76		65,90		6
Barnealdea	46,26		48,56		-5	40,70		39,01		4	44,74		48,05		-7	50,57		53,36		-5
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	26.973	100	30.032	100	-10	3.435	100	4.705	100	-27	8.170	100	8.037	100	2	15.368	100	17.290	100	-11
Estatukoak	23.244	86	24.288	81	-4	3.117	91	4.255	90	-27	6.381	78	6.563	82	-3	13.746	89	13.470	78	2
Atzerrikoak	3.729	14	5.744	19	-35	318	9	450	10	-29	1.789	22	1.474	18	21	1.622	11	3.820	22	-58
BIDAIA-RIEN SARRERAK	10.122	100	10.676	100	-5	1.650	100	2.154	100	-23	3.179	100	3.272	100	-3	5.293	100	5.250	100	1
Estatukoak	8.895	88	9.084	85	-2	1.546	94	1.958	91	-21	2.631	83	2.609	80	1	4.718	89	4.517	86	4
Atzerrikoak	1.227	12	1.592	15	-23	104	6	196	9	-47	548	17	663	20	-17	575	11	733	14	-22
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,66		2,81		-5	2,08		2,18		-5	2,57		2,46		4	2,90		3,29		-12
BETETZE-MAILA PLAZAKA	24,27		28,87		-16	15,68		23,83		-34	21,75		22,82		-5	29,73		35,25		-16
BETETZE-MAILA GELAKA	25,84		32,46		-20	16,74		28,17		-41	23,06		25,72		-10	31,79		39,30		-19

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp